

## HERRI MUSIKA ZALEAK COMPOSTELAN

*Hernaniko eta Oiartzungo herri soinu tresnen ikasle eta irakasleak joan den abenduan izan ziren Galizian*

Joan den abenduko zubian, hilaren 4tik 6ra alegia, Oiartzungo Herri Musika Eskolako ikasleak eta Hernaniko Musika Eskolako dultzainero, txistulari, trikitilari, txalapartari eta albokariak Galizian izan ziren, Compostelako Santiagon hain zuzen ere, "A Central Folque" elkarteak zuzentzen duen "Centro Galego de Música Popular" eskolako kideek gonbidatuta.

Erakunde honek 7 urtez Lalingo CMTFE eskola kudeatu zuen arrakasta handiz eta gaur egun Galizian barrena bi egoitza ezberdin ditu, helduentzako *Escuela Folque de Santiago* -130 ikasle- eta haurrentzat *Aula folque Infantil de Pontevedra* -40 ikasle ditu bertan-. Irakaskuntzarekin batera herri musika ardatz duten ainbat ekoizpen eta ikerketa ezberdin bultzatzen dituzte urtean zehar. Hauen artean, batzuk aipatze arren: udako ikastaro intentsiboak, Ortigueirako Herriarte Jaialdian tailer ezberdinak, Galiziar Musikako Postgradoa Santiagoko Unibertsitatean (USC), Ferrolen *Ciclo de músicas portuarias*, ikerketa ezberdinen publikazioak eta abar.

### Galiziako eta Euskal Herriko doinuekin jantzitako ekitaldia

Bisitaren zioa larunbat ilunabarrez euskal soinu tresnen kontzertu-erakustaldia gauzatzea zen, eta igande eguerdiz Santiagoko kaleetan barrena dultzainero, txistulari eta trikitilariak kalejira egitekoa, baina azken hau ezin izan zen burutu eguraldi kaskarra zela eta (García Lorcak zioen bezala, "chove en Santiago"). Nolanahi ere, kontzertuak ez zuen huts egin. Santa Clara kaleko O Pichel elkarteko ekitaldi aretoa jendez gainezka zela eskaini zen eta hiru atal izan zituen: lehen zatian herri musika galegoa eskaini zuten

HM Txokoan aspaldiko lagun ditugun *Fernández & Quintá* bikoteak, zanfona eta soinu txikiak. Paregabeak.

Jarraian, bigarren zatian, Hernani eta Oiartzungo eskoletako kideek gure soinu tresna eta musika ezberdinen aurkezpena egin zuten. Txalapartariak bi joaldi egin zituzten, bata bi txalapartariaren arteko joaldi tradi-

ttun, akordeoi eta albokak Nafarroa Behereko jauzi eta Galiziako muiñeira bana uztartu zituzten, Santiago bidea irudikatu nahirik "Irulegitik Compostelara" izeneko doinuan, eta honi kalejira alai sorta lotu zitzaion txistu, dultzaina, akordeoi, txalaparta, alboka eta gainera-koek bat eginaz.



**Bidaian parte hartu zutenen argazkia atzean Compostelako Santiagoko katedrala.** HMT

zionala, eta bestea hiruren arteko ote-jotzean eta kirikoketan oinarritua; ondoren dultzaineroek nafar estiloan erraldoietarako balts ezagun bat eta gipuzkoarrean Agirretxetarren pasodoble bat eskaini zituzten, alboka doinuaz jota eta porrusaldak jarraitzeko; txistulariek zortziko eta kontrapas banaren ondoren aldaeradun doinu birtuoso ezagunenetako bat (Isidro Ansorenaren "Hiru damatxo") eta XIX. mendeko txistularien erreperatorioko fandango ederra jo zituzten, eta hauen atzetik trikitilariak ere euren trebezia erakutsi zuten beste fandango eta arin-arin banarekin.

Kontzertua amaitzeko, xirula, ttun-

Kontzertuak izan zuten hirugarren zatirik ordea, errugbi jokalarien tankeran. Izan ere, kontzertua amaitu orduko Santiagoko eskolako gaita eta pandeiro joleek bizkor hartu zuten txanda, eta gure txistulari eta dultzaineroak gehitu zitzaizkielarik, dantzan jarri zuten areto osoa, lagun arteko giro ederrean, goizeko ordu txikiak arte.

Galegoek harrera ezin hobea egin ziguten eta, euriak euri, bertara gerturatu ginen autobuska lagunontzat asteburu ahaztu ezina suertatu zen, eskola hauen arteko adiskidetasunak osteria ere fruitu onak emango dituelako uste osoa utziz.

# KONTZERTUAK HM TXOKOAN

## Neguko kontzertua

2011ko otsailaren 5ean - 18,30tan - HM TXOKOAN

### MINISTRILS DEL RAVAL

**Miqui Giménez:** Gitarra, akordeoia, flabiola eta ahotsa **Carles Llongueras:** Gralla eta ahotsa

**Jaume Moros:** Fiskornoa eta ahotsa **Joan Obradós:** Tuba **Josep M<sup>a</sup> Pey:** Tenora

**Pere Ruiz:** Saxo sopranoa **Isi Vázquez:** Bateria eta perkusioa



Terrassako *Ministrils del Raval* 1988an bere herriko Festa Nagusian sortu zen musika taldea da. Geroztik ez dio urteak berekin dakartzan festa herrikoietan parte hartzeari utzi.

Bertako musikariek dantza taldeak, erraldoiak, buruhandiak, makil dantzak eta bestelakoak lagundu dituzte, eta herri musika biltzeko eta berreskuratzeke egin duten lanean herri ezberdinetako jendearekin egin dute lana leku haietan bertako festekin lotutako antzinako doinuak berriro bizitzeko.

Bere arreta nagusiki herri dantzei eskaini diete (dantza herrikoiei eta bikoteka dantzaten direnei). Horretaz gain haurrei zuzenduta sustrai herrikoia duten kontzertu eta ekitaldiak egiten dituzte (musikalak eta jolasak).

Beraien soinu tresnekin kataluniar lurraldea alde batetik bestera

zeharkatu dute eta beraien doinuak Europako zenbait herrialde-tan ere entzunarazi dituzte.

Argitaratuta hainbat lan dituzte. DVD formatuan *Quina Canya* eta CD formatuan *Filomena*, *Bon Nadal*, *Crits*, *Festa Major* eta *Set de Nou*. Horietaz gain *Tradicionari*us zikloko hainbat CD-tan ere lagundu dute.

Eta gaur egun, eszenatokira igoaz eta munduan musikari izanez hogeitertietatik goiti daramatzaten honetan, oraindik Festan jarraitzeko gogoz daude. Gogoazuzentzen eta askatzen utziko duten Mediterraneoko soinua duten doinuak emanez. Maitasun sastadez, brindis lasaiez, egiazko lagunez, konplizitate keinuez, bikote aldaketez, sekretu pikanteez eta moskatela bezain musueztiez gozatzeko parada eskaintzen duten gertuko soinuekin.

#### EGITARAUA

1. Sintonia del Xiu-Xiu (*Eguberria*)
2. Caga Tió (*Eguberria*)
3. Ball de Reis (*Eguberria*)
  - Avui és la diada
  - Els tres reis
  - Si el villano
  - Trumfos
  - Els Reis ja vénen
4. Cavalls i rucs (*San Antonio*)
5. L'Estapera (*San Antonio*)
6. Ball de la Murga (*Inauteria*)
7. Ball de Cascavells (*Pazkoa*)
8. Ball de Drac (*San Jordi*)
9. Ball de la Coca (*Maiatza*)
10. Ball de l'Àliga (*Corpus*)
11. Balls d'Isil (*San Juan*)
  - Marxa dels fallaires
  - Ball de bastons
  - Ball Pla
  - Bolangeria
12. Festa Major (*Uda*)
  - Matinades
  - Ball de plaça
  - Ball de Nans
  - Ball de bastons Anelles
  - Ball de gegants
  - Toc de Castells
  - Rumba del 5 de 9
13. Nostatis ni manjolis (*Udazkena*)
14. Ball d'en Capablanca (*Udazkena*)
15. El Virolet (*Eguberria*)

# GERNIKAKO MARIJESIAK



Gernikan Marijesiak abenduaren 16tik 24ra izaten dira eta goizaldeko lauetatik seietara aritzen dira Gabon egunaren etorrera iragartzen. Abenduaren 24an aurreko egunetako saioari beste bi gehitzen dizkiote eta errondan eguerdira arte aritzen dira. HMT

Gernikako Marijesien ohiturak Gabon egunaren etorrera iragartzen du egun honen aurreko bederatziruenean. Hau da, abenduaren 16tik 24ra arte egunero goizaldeko lauetatik seietara pertsona talde bat biltzen da Gernika-Lumoko kaleetan barrena abesten. Batz bestea 70 pertsona, gizonezkoak eta emakumezkoak, biltzen dira saio bakoitzean.

Solista bat aurretik eta korua atzetik ibiltzen dira kaleetan zehar Ama Birjiñaren eta Gabonen misterioak abesten. Taldea Andra Mari elizatik irteten da eta ibilbide ezberdinak egiten ditu egun bakoitzean, ondoren berriz ere hasitako lekuan, parrokia berean, bukatzeko.

Abesten diren doinuak eta errepikak hiru dira -antzerki obra bateko hiru zati izango balira-.



Pasa den abenduaren 24an, egun argiz egiten den saioan. Erlantz Ortiz

Neguko kontzertua HM Txokoan

## AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita. Prezioa: 18 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



## INAUTERIAK AZAROAN

Azaroaren azken asteburuan Oiartzunen izan ziren Herri Musikaren Jardunaldietan inauteriek izan duten bilakaera aztertu zuten. Larunbatean Euskal Herriko eta Errioxako hizlariak emandako hitzaldirak bi sailetan bereiz daitezke. Batetik, Carlos Ortiz de Zarate, Ernesto Dominguez, Oier Araolazak eta Oiartzungo lhote taldeak beraien herrietan inauteriak nola antolatu eta bizi dituzten kontatu zuten. Bestetik, Emilio Xabier Dueñas eta Kepa Fernandez de Larrinoak inauteriei buruz egin dituzten ikerketetan bildu dituzten datuak azaldu zituzten.

Igandean Beskoitzetik (Lapurdi) etorritako Oinak Arin dantza taldeko Jean-Raymond Mailharrancin-ek beraien herriko inauteriak izan dituen gorabeherak azaldu zituen eta ondoren beraien dantzatzen dituzten dantzetako pare bat erakutsi zituen. Segidan, dantzariak inauterietako arropa jantzi eta Oiartzungo Doneztebe enparantzako inguruetan dantza



Oinak Arin dantza taldeko dantzariak Oiartzunen. HMT

erakustaldi aparta eman zuten. Beraiekin batera Oiartzungo lhote taldekoek eta Lartaun Txistulari Taldeak herriko auzoetan inauterietan egiten den eskeko buelta antzeztu zuten.

## EZAGUTZEN GAITUZTE

Udako buletinean aurreratzen genuen bezala, aurten bisitarien kopurua erruz handitu da. Herri Musikaren Txokoak bere atea 2002ko martxoan iriki zituenetik urtero jaso duen bisitari kopuruak goranzko joera agertu du. Lehenengo urte hartan bi mila bat pertsonak ikusi zituzten erakusketako soinu tresnak. Hurrengo urteetan bisitari gehiago izan baziren ere, 2006an gainditu zen hiru mila bisitarien barrera, geroztik jaitsi ez dena.

Aurten lau mila eta berrehun bisitari baino gehiago izan ditugu. Gehiengoa Euskal Herri osotik etorritako haurrak dira, baina tartean badira argazkian ikusten diren bezalakoak ere, hau da, kanpoko musika eskole-tatik etorritako taldeak ere.



Landetako kontserbatorioko ikasleak Herri Musikaren Txokoaren aurrean dagoen frontoian. HMT

## HM BILDUMAKO ZORTZIGARRENA

Bildumako liburu berriak Herri Musikaren 6. eta 7. Jardunaldietan aurkeztutako lanak biltzen ditu.

2007an ospatutako jardunaldiek alboka hartu zuten gaitzat. Orduko hartan Herri Musika Jardunaldiak Hemaniko Albokariaren Topaketarekin batera izan ziren. Manu Gojenola, Juan Mari Beltran, Dani García de la Cuesta, Fede de Dios, Allan Griffin eta Osses-ek albokaren alde ezberdinak arakatu zituzten. Sardiniatik etorritako Paolo Zedda eta Andrea Pisuk *launeddas*-a hurbildu zuten Oiartzun eta Hemanira.

Urtebete beranduago ezkilen txanda izan zen. Garai batean herritarren bizitzaren tempoa ezartzen zuten soinu tresna erraldoi hauen inguruan aritu ziren Patxo Fernandez de Jauregui, Francesc Llop i Álvaro, Francesc Llop i Bayo, Antton Mari Aldekoa eta Arientzako Kanpajoleak. Zer eta noiz jotzen zen, zein ezaugarri dituzten, nork jotzen zituen,... alde asko ukitu ziren.

Hizlariak aurkeztutako lanak biltzeaz gain, jardunaldi haietan izan ziren emanaldiak eta gertatutakoak laburtzen dituzten argazkien bilduma ere badauka liburuak, 6. eta 7. jardunaldietako testiguo isilak.



### BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 686

Antolatutako taldeak: 31

Bisitari kopurua urtarrilerarte: 28.052

### WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 13.596

## HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

